

# Forbestar Sabin



**AHOZTAR ZELAIETA**  
KAZETARIA

**2**017an Sabino Arrieta jeltzalea Forbes aldizkariko Euskadiko aberatsen zerrendaren bigarren postuan zela irakurri genuen. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuordea izandakoa da, 1984tik 1989ra. Sabinok Miamin 17 milioi dolar inbertitu ditu jada Amerikako Estatu Batuetako prentsaren arabera eta beste 40 milioi euro Düsseldorf, Frankfurt, Hamburg eta München hirietan, Alemaniako prentsaren arabera.

2020an Miamin oihartzun handiko eraikin baten jabe bihurtu da, 12 milioi dolar ordaindu ondoren. Tutik ere ez da aipatu euskal prentsari. 2017an Espainiako prentsaren bitartez jakin genuen beste eraikin garrantzitsu bat erosi zuela Miamin, 5,2 milioi dolar ordaindu ondoren. Eraikin honetatik hurbil dago Atlantis eraikina, *Miami Vice* telesailaren ikonoa. Telesail honetan euskal jatorria zuen polizia bat agertzen zen.

2017an Sabinoren berri izan genuen berriz, Bilbon *prime* eraikin bat 6 milioi eurotan saldu ondoren. Baina isilpean 2016an Düsseldorf hirian eraikin baten jabe egin zen 6 milioi eurotako operazio

Sabinok EAJrekin loturak mantendu ditu azken urteotan. 2011 urtean Naturgitzza Fundazioaren presidente bilakatu zen. Fundazio honek De Miguel auziarekin loturak zituen

batean, eta 2013an Frankfurten 7 milioi eurotako beste eraikin bat erosi zuen.

Sabinok EAJrekin loturak mantendu ditu azken urteotan. 2011 urtean Naturgitzza Fundazioaren presidente bilakatu zen. Fundazio honek De Miguel auziarekin loturak zituen, eta bere patronatuan Juan Mari Atutxa Segurtasun sailburu ohia ageri da. 2013an Agirre Lehendakaria Fundazioaren sorkuntzan parte hartu zuen Sabinok.

Sabinok Eusko Jaurlaritzatik utzi eta enpresari bezala bere ibilbidea hasi zuen, Laurak SA eta Vinilika SA enpresen jabe bihurtuz. Enpresa horiek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak jaso zituzten. 3-R planaren dirulaguntzez ari gara, Industria sailburuak, Jon Azuak, zuzendutako plana. Urte batzuk geroago Kontu Auzitegiak dirulaguntza horien irregularitasunak agerian utzi zituen. 3-R planak Joseba Grajales aberatsaren enpresen alde ere egin zuen. Gaur egun Grajales eta Azua sozioak dira Keraltay izeneko osasun arloko enpresa batean. Jon Darpon Osasun sailburu ohia, Keraltay lan egiten hasi zen hain zuzen ere, dimisioa aurkeztu ondoren.

Sabino Sidenorreko presidente izandakoa da, 1995 urtean 13 milioi euro ordaindu ondoren. Hamar urte beranduago enpresa Sidenor Gerdau talde brasildarrari saldu eta 445 milioi euro irabazi zituen Sabinok. Sidenorreko presidente zela, 2003an, Cilindros Bolueta enpresaren lursailak erosi zituen 60.000 eurogatik, 20 milioi irabaziz *pelotazo* horretan. ●



943 64 17 10  
[www.endanea.com](http://www.endanea.com)

## Baratztea etxean

Barazkiak, landare usaintsuak edo jangarriak etxean ekoiztea oso erraza da. Gogoz? Zatoz!

[Online denda](#)

